



Trikitixa eta perkusio kontzertu paregabea entzun zen asteartean Manuel Lekuona Kultur etxean.

Soinua eta hotsa

Donato Goyenechek eta Xabier Arakamak kontzertu pedagogiko interesgarria eskaini zuten

Bongoak, marinba, afrikar danborra, kriskitina, kutxa... hainbat perkusio instrumentu entzun ahal izan ziren trikitixarekin batera asteartean Manuel Lekuona kultur etxean eskaini zen kontzertu pedagogikoan. Kutxak babestutako emanaldian, Donato Goyeneche perkusionista eta Xabier Arakama trikitilariak, besteak beste, musika klasikoa, fandango eta arin-arina edo beraiek sortutako lanak jo zituzten nahasketa interesgarriak sortuz. •



Sorgin jaien aurkezpen jaialdia bertan behera utzi da

Sorgin Jaien aurkezpen jaialdia eta aurtan pregoilari izango diren faxismoaren biktimei omenaldia bertan behera utzi dituzte eta ez dira larunbatean burutuko Udalak ez duelako frontoi berria erabiltzeko baimenik eman. /4

Donostiatik Ponferradara

Astelehenean, 1930. hamarkadara atzera egin zuen Aierru gasolindegia. Izan ere, garai-ko Ford A ereduak 30 kotxe bertan egin zuten geldialdia.

Protagonistas-Punto Radio rallyko XIX.edizioko partaideak izan genituen eguerdi aldera herriko gasolindegian.

1928 eta 1931 urte arteko kotxe hauek igandean Donostiatik atera ziren, eta gaur ostirala, Ponferradan dute helmuga. Bitartean, Lasarte-Orian bezala herri ezberdinetan hartuko dute atseden. Maitasunez zaintzen dituzten auto horiak hurbiltzen direnei erakustea dute helburu. •



GIZARTEA /4

Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidearen aldeko manifestazioa Iruñean

KIROLA/6

Eskola kiroleko teniseko gaztetxoak Donostialdeko azken faserako sailkatu dira

MAITE
ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa angri pulsatuarekin

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea 3/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

SUGATE SUKALDEAK

VEGASA ESKAINTZAI!
%15KO BEHERAPENA ALTZARIETAN

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma-armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

ERAKUSLEIHOAREN ALDAKETAGATIK
%40AREN BEHERAPENA

* (ezin da beste eskaintzekin bateratu)

Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net

Neure kabuz



1,81 euroko diru laguntza

1,81 euro partaide bakoitzeko, horixe da aurtan Lasarte-Oriako Antzerki eta Dantza Eskolako Udalaren aldetik jasoko duen diru laguntza. Matematika erraza da: jasotako 1000 euroak 550 partaideen artean banatu eta... 1,81 euro bakoitzeko. Luxutarako urri, partaideei kafesne bat hartzera gonbidatzeko ondo. Ondo eta sobera. Sobera, kruasana etxetik ekartzan badute, noski. Eta pozik gaude. Oso-oso pozik, nolabait esateko.

Izan ere, Eskolak ez die kafesnera gonbidatzen. Hori da kontua. Akademia baten antipodetan, klasera datozen ume eta helduek beren baitan dituzten, lotan agian, gaitasunei espresabide bat ematea du xede Eskolak. Euskaraz emanda. Ondo pasatuz gainera. Den-dena ez da ondo egingo, baina datuak datu dira: iaz 300 lagun inguru baziren, aurtan 550 izan dira. Partaide aktiboak, astero-astero dantzaz jartzen ditugunak. Dantzaz eta antzerkian. Ba al dago hainbeste jende mugitzen duen elkarterik gure herrian?

Udalak, ordea, luxu urria bertuteetan bertuteena omen duenez, luxu urrietan nahi gaitu trebe. Horretan aurkitzea kontentua. Luxu urria, ulertzen? "Bo! Nork ez du hori gustuko?", pentsatuko dute.

Orain, 8. Antzerki eta Dantza Asteari emango zaio hasiera luxuzko desfile batez. Urtean zehar egindako lana herriarekin konpartitzeko unea. 1000 eurotik gorako zuloa sortuko du horrek ordea. Zuloa, ulertzen? Ez dakit ba, ez dakit azkenean serorarena egin beharko ez ote dugun: fieltrozko poltsa txoa eskuan, luxu urriaren kontrako kolekta egin, alegia.

Pablo Barrio

Zorion-agurrak



Manuel

Zorionak aitona! Muxu handi bat familiaren partetik. Ondo pasa!



Eneko

Zorionak zure 2. urtebetetzean!! Ondo pasa eguna eta muxu handi bat etxekoan partetik.



Eneko

Zorionak bihotza. 4 kandela dagoeneko opilean!! Muxu handia gurasoak eta Aritzek.



Koan

Zorionak etxeko printze. Muxu handi mila



Aimar

Zorionak pottolo! Hiru muxu handi zure familien partetik



Iraia

Zorionak printzesa! Muxu pottoloak aita-txo, amatxo eta Leire-ren partetik.



Eneritz

Zorionak laztana 9 urte eta lehen jaurnartzea. Eñaut, gurasoak eta familiaren partetik.



Mikel

Aupa Mikelon. Iritsi da eguna! Ondo pasa lagunekin. Familia eta Sarasola familiaren partetik.



Leire

Zorionak printzesa! Denon partetik.



Ainara

Zorionak printzesa! Txokomarrubizko 7 muxu pottolo, familiaren partetik!



Julen

Zorionak txapeldun zure 10. Urtebetetzean. 10 muxu. Naroa eta gurasoak



Nora

Zorionak printzesa 2. urtebetetzean! 2 muxu handi! Amona, izeba-osaba, Ander eta Erika.



Juan Karlos, Julen eta Jaione

Zorionak hirukote! Ongi pasa zuen egunetan, amatxo eta aitonamonen partetik.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Etxe bat saltzen da Alesancon (Escarayren ondoan) lorategiarekin, igerileku eta gune komunak. Telefonoa 676 910 566.

• Pisua salgai Iruran. 3 gela, komuna, sukaldea eta egongela. Dena kanpoaldea eta eguzkitsua. Bero-gailua eta armairu enpotratuak ditu. Tel.: 695 785 153.

• Apartamentu bat alokatzen dut ekainetik aurrera Cala de Finestrat herrian. 2 logela, egongela, bi komun eta sukaldea ditu. Urbanizazioak igerilekua eta paddel pista ditu eta hondartza 150 metroterra du. Tel.: 667 731 456.

Salerosketak

• Lan bila nabil etxerik etxe erizain laguntzaile moduan, edo aitezain gisa... Esperientzi luzearekin. Telefonoa: 680 983 527, Karlos.

• Motorra duen aulki gurgilduna salgai. Oso gutxi erabilia. Tlf: 687659261

Lan-eskaintzak

• Neska edo emakume bat behar da arratsalde, bi urteko ume bat zaintzeko. Interesatuak 687 230 051 zenbakira deitu.

• Lasarte-Orian martxan dagoen okindegia alokatzen da. Interesatuak deitu 653 703 531 edo 943 550 089 telefono zenbakietara.

Lan-eskariak

• Txinerazko klaseak eskeintzen dira etxean bertan. Irakasle txinatarra. Interesaturik daudenak 671948933 telefono zenbakira deitzea baino ez dute.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com • Tel.: 943 366858

Guardiak

Ostirala, 14

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361 529

Larunbata, 15

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361 774

Igandea, 16

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361 774

Astelehena, 17

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363 549

Astearte, 18

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366 567

Asteazkena, 19

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362 652

Osteguna, 20

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371 151

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldedia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
KIUB ... 943361605
Udal eskualtegia ... 943361621

Heriotzak

Petronila Gonzalez Hueso, maiatzaren 8an 89 urte zituela.
Rodrigo Martín Tarrero, maiatzaren 6an 77 urte zituela.
Blas Tello Fernandez, apirilaren 28an 65 urte zituela.



Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluak eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Gai ugari Udal Batzarrean

Ostegun goizeko Udal batzarrean, besteak beste, Lasarte-Oriako Udalaren eta Bidegiren arteko lankidetzak hitzarmena onetsi zen. Honen bitartez, esate baterako, Lasarte-Oriak lurrazalak uzten dizkio Bidegiri eta honek, aldi, ondoko lurrazal babestu eta soinu murrizteko pantaila akustikoak jarriko ditu Sasota eta Goiegiko eremuan.

Goiegiko Ibarra promozioaren zozketaren baldintzak eta prozedura ere onetsi zen atzo goizean (hurrengo zenbakian azalduko dugu luze eta zabal).

Horretaz gain, 2010 urteko ekitaldian gaur arte bideratu diren espediente ekonomikoak berri eman zuten Jesus Zaballos alkateak, hala nola, eskatu diren dirulaguntzak.

"Gipuzkoan bidesari gehiagorik ez" Partidu Popularrak aurkezturiko mozioa ere aurrera ateratu zen. Honen bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskaera egiten zaio errepide handietan bidesaririk ez jartzeko. "Izan ere, ez zaigu bidezkoa iruditzen bidesariak jartzea, dagoeneko ordainduta dagoen azpiegitura batean," aipatu zuen PPko zinegotziak.

Hala ere, aurretik, gai berari buruz, EBak eta EAJk, honek bidesarien alde, aurkeztutako beste bi mozio aztertu eta atzera bota ziren.

Alkatetzaren informazioa

Alkateak, batetik, 2009ko likidazioan sei milioiko superabita dagoela aipatu zuen.

Bestetik, E planeako Loidi-Barreneko frontoi eta padeleko lanak, Antia S.L. enpresari esleitu zaizkiola jakitera eman zuten eta, Gaztelekuko enpresa oraindik erabakitzeke dagoela.



Gai ugari aztertu eta hamaika galdera egin zituzten zinegotziek atzo egin zen Udal Batzarrean.

Era berean, enpresa hauek herriko langabetuak kontratatu behar dituztela adostu dute Udalarekin. Esate baterako, bost pertsona kontratatuko dituzte pilotalekuko lanetan.

Bestetik, alkatetzak komunikabideei helarazitako eta argitaratutako bi ohar irakurri zituen alkateak gizarte zerbitzuetako langileen kontratatze eta soldata murrizketei eta Rafa Diez Usabiagaren askapenari buruzkoak.

Galdera ugari

Ostean, alderdiek galderak eta eskaerak egiteko txanda izan zen. Ezker abertzaleak aurreko Batzarrean erantzunik izan ez zuenez Teresategiko industrialdeari buruzko informazioa eskatu zuen, eta, era berean, industrialdea eraikitzeke gasteen datuak eskaini zituen.

Itzi Mugika Hirigintzako lehendakariak erantzun zuen Buruntzaldeko Industrialdeare-

kin lanean ari direla, proiektua aurrera doala eta Batzarretik pasako dela adieraziz. Eta eskainitako datuak proiektua egingarria zen edo ez jakiteko txostenekoak direla aipatu zuen Mugikak.

Somotoko ikerketa

Honetaz gain, Somotoko auditoriari buruz galdetu zuten Ezker Abertzaleak eta LOHPak. Alkateak auditoria hasi dela aipatu zuen: "hurrengo hilabetean txosten bat izango dugu".

Ezker Batuko zinegotziak likidazioa egiterakoan irizpide aldaketa egon dela eta Udaleko sail bakoitzari aurrekontua egiteko eskatu diola jakinarazi zuen, beraz, "2010erako aurrekontua egiteko asmoa al dago?", galdetu zuen Ortegak.

Alkateak likidazioan, Foru Aldundiak ahalbidetzen duen formula bat erabili duela aipatu zuen, aurrekontuen luzapenak jarraitzen duela eta aurrekon-

tuak inbertsio plana aurkezteko eskatu dituela.

Rafa Diezen kasua

Jose Encinas PPko zinegotziak Rafa Diez Usabiagaren kaleratzeari buruz, Lasarte-Oriako Gizarte Zerbitzuetako agiri batek kaleratze hori ahalbidetu duela adierazi zuen. Horregatik, saileko lehendakariari galdetu zion zergatik eta nork eskatuta egin zuen agiri hori.

Alkateak, Diez Usabiaga gartzelatik Garzonek ateratu duela gogoratu zuen eta Gizarte Zerbitzuetako lehendakariari eman zion hitza.

Lourdes Acevedok bere egin beharra herriko biztanle guztiei zerbitzua ematea dela gogoratu zuen, epailearen aurrean egon zela eta epaileari aurkeztu agirian LAB sindikatuko agintari ohiaren amak "Gizarte Zerbitzuetan ordua eskatu due la adierazten dela dio," esan zuen.

Ostean, Ana Prieto LOHPko zinegotziak ospitaleetarako eta herri barruko autobusari buruz galdetu zuen.

Jesus Zaballosek herriko autobusa negoziatioetan dagoela adierazi zuen; ospitaleetara joango denari buruz, maiatzaren 17an, martxan jarriko dela uste duela aipatu zuen. Hala ere, Foru Aldundirekin bilduko dela ibilbidea ez delako Lasarte-Oriarentzat egokiena.

Diru laguntzen ikerketa

Era berean, Plataformako zinegotziak eta EAJko ordezkariak Dirulaguntzen ikerketa batzordea mantso doala salatu zuten.

Batzordeko lehendakariak, PPko zinegotzi Encinasek aipatu zuen "duela hilabete batzuk azkar doala zenioten, orain mantso doala" eta alderdi guztiak jakinaren gainean daudela erritmo hori eten dela, besteak beste, "idazkaria oporretan dagoelako."

Estitxu Alkorta EAJko bozeramaileak adierazi zuen likidazio datuak apirilekoak direla orain eta ez abendukoak. Gainera, "zergatik ez plan finantzarioa edo aurrekontua egin?" galdetu zuen.

Bestalde, duela bi hilabete teknikari maila igo zitzaela eta orain soldata jaitzi zaiela adierazi zuen, baita liberalizazioa banatu dutela ere. Horregatik, aldaketa horien arteko diferentzia jakin nahi izan zuen. Alkateak teknikoen maila igoera ukatu zuen: "datu horiek alkate aldaketan egindako txostenetakoak dira eta horietan teknikarien maila mantendu zen". Liberalizazioa pertsona bakarrari eman zaiola ere azaldu zuen. •

Udalak antolatutako udalekuetan parte hartzeko epea 17an irekiko da

Uztailaren 1etik 15era Lasarte-Oriako 64 gaztetxoek Burgosen hamabostaldi ikaragarria igarotzeko aukera luzatu nahi diete Lasarte-Oriako udalari.

Zerbitzu Sozialetako, Enplegu eta Kooperazioko departamentuak ekintza ugari antolatu ditu hamabost egun horietan inor ez aspertzeko astirik izan ez dadin. 10-14 urte bitarteko gazteei zuzentzen zaie Burgos ezagutzeko eta ongi pasatzeko aisialdi aukera.

Udalekuetan izena emateko baldintzak Lasarte-Oriako erroldatuta egotea, haurra bere kabuz baliatu ahal izatea eta 1996 eta 2000 urte bitartean jaiotakoak izatea.

Jarduera ugari

Fuentes Blancas aterpea hartuko ditu lasarteoriatarrak hamabostaldian zehar. Burgos erdialdetik 3 km-ra eta Cartuja de Miraflores herritik hurbil, natura puri-puriko parajea. Bi taldetan banatuak egongo dira gaztetxoak, 10-12 urte eta 12-14ena. Gymkhana, mendiko ibilaldiak, kirol jarduerak, ur jolasak, musika, tailerrak... denetarik aspertzeko astirik eduki ez dezaten. Goizez zein arratsalde, helburua ongi pasatea.

Egun osoko jarduerak ere egongo dira; multiabenturazko raida Arlanzon Parkean, Burgoseko katedralaren bisita eta hiri-ralya eta Hegaztien

Interpretazio Zentroa eta Burgosko gazteluaren hondakinak bisitatzea.

Epea eta izen-ematea

Maiatzaren 17tik 31 bitartean eman beharko da izena udalekuetan parte hartzeko. Horretarako, udaletxeko Erregistro Nagusira jo beharko da goizeko 9:00etatik 13:30etara. Hamabostaldi osoaz disfrutatzeko, haur bakoitzak 244,10 euro ordaindu beharko ditu.

Udalekuei buruz informazio zehatzago jaso nahi duenak Zerbitzu Sozialetako departamentutik pasa beharko du 9:00etatik 13.00 bitartean, edo www.lasarte-oria.org web orrialdean begiratu. •

OINATZ

Bardea Txurieta irteera

Oinatz taldeak Nafarroako hegoalderuntz, egingo du bere hurrengo irteera, Bardeetara, hain zuzen ere. Bi eguneko txangoak inguru berezi horretako txokoak eta inguruko herrizkako ezagutzeko aukera emango du, hala nola, Peñafloz gaztelua, Yugoko ermita, Rallon edo Pizkerra.

Txango honetan parte hartu nahi duenak edo informazioa gehiago nahi duenak, Itakun kultur elkartera hurbildu edo 943 371 484 zenbakira deitu. Izena ematea, maiatzaren 17a arte, astelehenera arte, egongo da irekia. •

IKASTAROA

Manipulatzaila ikastaroa atzeratua

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Sanitateko Departamentuarekin elkarlanean, maiatzaren 12an eta 13an eskaini behar zuen ikastaroa atzeratu da.

Data berriak ekainaren 9 eta 10ean dira eta lekua eta ordua mantentzen dira. Beraz, Osasun Zentro berriko hirugarren solairuko erabilera anitzeko aretoan emango da, eta ordutegia 16:00etatik 19:00etara izango da.

Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, 943 533 303 telefonora deitu behar dute interesatuek. •

Faxismoaren biktimei omenaldia eta jaiak aurkezteko festa bertan behera

■ Larunbateko Sorgin Jaien aurkezpen jaialdia eta aurtengo pregoilariei omenaldia atzeratu egin dira ■ Udalak ez du frontoi berria erabiltzeko baimenik eman

Sorgin Jaien aurkezpen jaialdia egiteko asmoa zuten larunbat honetan, eta egitarauaren barruan, aurtengo pregoilari izango diren faxismoaren biktimei omenaldia, baina bihar ez da festarik egingo; atzeratu eta egun osoko egitaraua bertan behera gelditu baita. Udalak ez duelako frontoi berria erabiltzeko baimenik eman. Larunbaterako iragarrita zegoen festa zen Sorgin Jaiak aurkezteko ekitaldi nagusia. Dena den, asteartean Euskal Herriko memoriari buruzko DVD emanaldia eta hitzaldia egin zen Xirimiri elkartearen eta ostegunean jaiak buruzko batzarra ere bai.

JON ALTUNA

Sorgin Jaien antolatzaileek egun osoko egitaraua prest zuten bihar larunbata frontoi berrian burutzeko. Umeen jolasak, sagardo eta talo dastaketa, bazkaria, abeslariak, trikitalari, "Garraxi Ixilak" antzerkia, erromeria eta Faxismoaren biktimei omenaldia. Baina, antolatzaileek festa bertan behera uztea erabaki dute, Udalak ez duelako frontoi berria erabiltzeko baimenik eman.

Sorgin Jaien pregoilariak, aurtengo faxismoaren biktimei izango dira eta aste honetan gaiaren inguruko zenbait ekitaldi burutu dira, batetik memoriari buruzko DVD emanaldia eta hitzaldia, asteartean, eta batzar irekia ostegunean, baina ekitaldi nagusia atzeratzea erabaki dute, aurrerago beste data batean egitea baztertu gabe.

Asteartean, altxamendu faxistaren ondorioz, 1936tik gaur arte Euskal Herrian izan diren hilketak, fusilamenduak, atxilotaketa eta beste hainbat erasoak eta horiek jasan dituztenei buruzko DVDa eman zen Xirimiri elkartearen eta Euskal Memoria egitasmoa aurkeztu zen.

Jaso eta zabaldu

Arantxa Erasun hizlariak adierazi zuenez, "gure historia guk geuk biltzea da" ekimenaren funtsa eta bi helburu ditu: bat oroimen kolektibo hori osatzea, egin gabeko lan asko eta jaso gabeko informazio ugari daudelako, eta bestetik hori zabaltzea, hau da tresna bat eskaintzea Euskal Herriaren iragana ezagutzeko.

Euskal Memoria fundazioak, liburu bat eta bi aldizkari argitaratuko ditu urtero. Gainera, euskarri informatikoan, DVDan, ere jasoko dira edukia. Konpromisoa hartu du



Arantxa Erasun eman zuten asteartean Xirimiri elkartearen Euskal Memoria egitasmoaren berri.



Altxamendu faxistaren ondorioak eta hainbat iritzi erakutsi ziren DVDan.

beraz, informazioa bildu, sailkatu eta eskuragarri jartzeko. Aurtengo "Gernikako seme-alabak" izeneko liburua aterako da azaroan eta azken bost

hamarkadatan, herriz herri izandako jazarpen kasuen bilduma izango da" jakinarazi zuen Erasunek. Jada informazioa jasotzen ari dira, herri

bakoitzean eraso edota atxilotaketa jasan zituztenen eskutik.

Hizlariak aipatu zuenez, "bost hamarkadatan estatuaren errepresioaren ondorioz 466 hildako daude, zaurituak mila-kita, 50.000 mila atxilotaketa politiko, 10.000 pertsona torturatu, 7.000 espetxeratu,... hau jasotzen eta honekin batera egitasmoa ezagutarazten ari gara."

Euskal Memoriaren helburua da 6.000 laguneko sare bat osatzea. Babesle bakoitzak urtero 65 euro jarriko ditu eta trukean liburua, DVDa eta bi aldizkariak jasoko ditu. www.euskalmemoria.com web orrialdean jaso daiteke informazio gehiago. •

Geltoki kalea itxiko dute ibilgailuentzat

Aste honetatik aurrera Geltoki kalea, 1 eta 11. zenbakien artean, Okendo plaza ingurua, trafikoarentzat itxeko asmoa agertu du Lasarte-Oriako Udalak. Udaletxearen berrikuntza eta handitze proiektuaren barruan egiten ari diren Okendo plazako urbanizazio eta berritze lanek eragin dute itxiera.

Baina atzo ez zen erabat itxi, lanen makinaria ateratzeko orduan ixten zen soilik. Aparkatutako ibilgailuak ken-

tzeko itxiko dutela adierazi dute Udal ordezkariak.

Beraz, aste batzuetan auto eta ibilgailuek ez dute Okendo plaza ondotik pasatzetik izango. Dena den, Udalak ez du irekiera datarik jakinarazi, momentuz ez dago noiz arte itxita egongo den zehaztuta eta erabakita.

Lasarte-Oriako Alkatetzak jakinarazi du barkamena eskatu nahi duela trafiko mozketak honen ondorioz sor daitezkeen eragozpenengatik. •



Euskaraz bizi nahi duten nafarren deia

- Manifestazioa antolatu du Kontseiluak Iruñean, larunbatean, arratsaldeko 18:00etan
- Aldarrikapena eta festa lotuko dituzte euskaldunen eskubide horri bultzada emateko

Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatzeko Kontseiluak Iruñean larunbatean egingo den manifestazioan parte hartzeko deia luzatu du Euskal Herri osora. Gaur egun, Nafarroan euskaraz bizitzeko aukurarik ez da, eskubide hori egunero eta bizitzako arlo guztietan urratzen da modu sistematikoan: "Euskaldunok ezin dugu euskaraz bizi eta egoera hori gainditzeko guztion bultzada beharrezkoa da. Horretarako urratsa eman nahi dugu. Gure aldarrikapena kalean egingo dugu maiatzaren 15ean".

TXINTXARRI


Takun elkarteak bat egin du Nafarroako euskaltzaleek eta Kontseiluak egin duten aldarrikapenarekin, lurralde hartan ere euskaraz bizitzeko duten eskubidearen aldeko eskaerarekin. Euskaltzale nafarrek "Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea" aldarrikatuko dute elkarrekin datorren larunbatean Iruñeko Golem zinematatik arratsaldeko 18:00etan aterako den manifestazioan. Lelo hori izango du ekimenak eta Nafarroan euskaraz zein euskaldunek bizi duten egoera tamalgarriari erantzungo dio.

Antolatzaileek adierazi dutenez, "eskubide berdintasuna besterik ez dugu eskatzen. Horretarako gaztelaniak duen estatus ofiziala euskarari ere aitortu behar zaio. Mendi-gorrian gaztelania ikasteko eskaintza publikoa badago, euskaraz ikastekoa ere egon behar da. Diputazioan gaztelaniaz hartatua izateko eskubidea badago, euskaraz izatekoa ere egon behar da... eta horrela hamaika adibide, hamaika arlotan. Pertsonen eskubideez ari gara, politikaren aurretik dauden eskubideez. Pertsonak gara, betebeharrak eta eskubideak

ditugunak, pertsonak gara diskriminazioa jasotzen dugunak. Nafarrak gara betebeharrak berdina izanik, euskaraz egiteko hainbatetan eskubiderik ez dugunak. Hori diskriminazioa da, lege gaizto batek ahalbidetzen duena. Eta Gobernuak modu ankerrean erabiltzen duena".

Eskubide urraketa

Nafarroako euskaltzaleek uste dute beharrezkoa dela eskubideen urraketa aurrean altxatzea. "Manifestazioak baliagarriak izan dira eta izango dira. Baliagarria izan zen Egunkariaren itxiera salatzeako antolatu zen hura eta Nafarroan euskaldunok pairatzen dugun egoera salatzeako antolatuko dugun hau. Horrekin batera beste hamaika ekimen egiten segitu behar dugu: euskaraz bizitzeko aukerak ugaritze aldera guneak irabaz-



Larunbatean arratsaldeko 18:00etan hasiko da Iruñeko manifestazioa.

ten segitu behar dugu, gizarte agenteekin harremanak aragotu behar ditugu, euskararen aldeko sentsibilizazio lana egiten jarraitu behar dugu....eta beste".

Baina honekin batera jakin badakite euskara bultzatuko duten lege eta arau egokiak beharrezkoak direla eta horiek erakundetan erabakitzen direla gehiengoak bozka-

tuta. Antolatzaileen iritziz, "beraz, bada garaia alderdi politiko eta bestelako agenteak mugiarazi eta gehiengo horiek osatzeko, alboan utzi behar direnak utzita".

Manifestazioan parte hartzeko deia luzatu dutenek Euskal Herri osoa jendea espero dute, denetarikoa jendea: "Euskararen aldeko manifestazio historikoa izatea nahi dugu eta helburu horren alde ari gara lanean" Nafarroako euskalgintza osoa bat eginik: "Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidearen aldarrikapena bere egiten duten herritar guztiona da hori, euskaldun, euskaltzale zein eskubide hori beratzat erabili nahi ez badu ere, besteentzat bermatzea bidezko ulertzen duen guztiena".

Abiapuntua

Manifestazioa, euskaltzaleen iritziz beste lan batzuk burutzeko abiapuntua izango da: "Manifestazioaren aitzakiaz, elkar ezagutzen sakontzen badugu eta euskalgintzako norbanako zein erakunde guztiekin harremanak estutzen baditugu, aukera ona sortuko da aurrerantz ere beste ekimen bateratuak planteatzeko. Eta hori berez ona eta eraginkorra behar luke. Zentzu horretan esaten dugu abiapuntua dela".

Bestalde, "www.blogak.com/maiatzak15" web orrialdean manifestazioaren lelo horrekin bat egiten duten pertsonen atxikimenduak jasotzen ari dira. "Egunez egun atxikimendu zerrenda luzatzen doa, pertsona ezagunak, ez ezagunak, euskaldunak, ez euskaldunak, hainbat pertsona ari dira atxikimendu ematen eta hori handia da, aurrera egiteko kemena ematen du". •



Nafarroako euskaltzaleek manifestazioa joateko deia zabaldu dute.

ZALDIKETA URNIETAN EKITAZIO ETA INGELESEKO ESKOLA


Gainera aisialdiko ekintzak:

6 urtetik aurrera

ibilbideak zaldiz,
igerileku propioa,
txangoak,
kirolak,
jangelako aukera
.....

Uztailean goizez
9:30etik 13:30era

INFORMAZIOA
943-333205 650-501796





Ostadarreko Erregional Gorenak larunbateko partida irabazi behar du.

Ostadarreko Erregionaleko mutilek igoerako postua jokoan

Futbol denboraldia amaitzeaz dago eta herriko taldeek igoera eta kopa faseko azken partidak jokatu dituzte aste hauetan.

Horieta bat da, Ostadarreko Erregional Gorenaren taldea. Josean Beldarrainen mutilek partida irabazi behar dute bere multzoko bigarren izateko.

Era honetara, beste multzoko bigarrenarekin joan eta itzuliko kanporaketa jokatu litzake taldeak, Erregionaleko Ohorezko Mailan sor daitezkeen lekuak bete ahal izateko.

Horregatik, Ostadarreko arduradunek herritarrei larunbatean 15:30ean Michelinera hurbildu eta taldea animatzera gonbidatzen dituzte.

Texas-Lasartearra eta kopa

Era berean, Texas-Lasartearrako Erregionaleko taldeak kopako lehenengo faseko azken partida jokatu du, Ostadarren partidaren ostean.

Nahiz eta azken faserako sailkatuak egon, bigarrenaren aurka dauka partida.

Arrasalde interesgarria, beraz, Michelinen larunbatean ikusiko dena. •

Teniseko gaztetxoak eskola kiroleko azken fasean

Infantil mailako Landaberriko nesken taldea Donostialdeko txapelketa

Donostialdeko Eskola kiroleko taldekako tenis txapelketa azken fasera iritsi da.

Azaroan hasi zen lehiaketa eta herriko ikastetxeetako 7 talde aritu dira txapelketan, infantiletan bi talde eta alebiretan bost.

Eta horietatik, alebin mailan, Landaberriko mutilen eta nesken talde bana sailkatu dira azken faserako, baita Sasoetako alebinen mutilen taldea ere.

Infantil mailan, aldiz, Landaberriko nesken taldea, Paula Uli eta Maialen Ormazabalak osatutakoak, urrezko domina eskuratuko du.

Finalera iritsiz gero, ekainaren 5ean, jokatu dituzte Donostiako Tenis Elkarte Errealean.

Banakako txapelketa

Era berean, apiriletik Michelin-go Kirol gunean Donostialdeko Eskola Kiroleko bakarkako txapelketa jokatzin ari da eta,



Herriko gaztetxoak taldekako, zein banakako txapelketako azken fasean daude.

besteak beste, 20 bat lasarteoriar lehiatu dira.

Honetan, infantil mailan, Paula Uli final aurrekoetan dago; alebin mutiletan, Landaberriko Ander Inurritak, Iker Hernandezek eta Eneko Martinek aurrera egin dute lehiaketan, baita Sasoetako Iker Ferdinandinok eta Albaro

Barqueroek ere; alebin nesketan, Saioa Mendiluzeek egin du aurrera eta, azkenik, kadete nesketan, Andrea Gonzalezek bigarren postua eskuratu du dagoeneko.

Txapelketa honetako finalak maiatzaren 22an jokatu dira Michelinen. Beraz, zorte on guztiei. •

Kiroleko agenda

FUTBOLA

Larunbata 15

10:00etan, Ostadar - Zarautz (Emakumezkoen KDT F-II, kopa) Michelinen.

11:30etan, Texas Lasartearra - Kostkas M.B. (I. Jubenila, kopa) Michelinen.

13:15etan, Ostadar - Añorga (Infantil txikiak, txapelketa fasea) Michelinen.

15:30etan, Ostadar - Behobia (Erregional Gorena) Michelinen.

17:15etan, Texas Lasartearra - Eibartarrak (I. Erregionala, kopa) Michelinen.

11:30etan, Euskalduna - Ostadar (I. Kadetea, igoera fasea) Ubitarte, Andoainen.

16:15etan, Zumaia - Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera fasea) Aita Mari, Zumaian.

18:00etan, Zarautz - Ostadar (Partehartze infantilak, kopa) Asti-Txiki, Zarautzen.

Igandea 16

10:00etan, Ostadar - Beti Ona (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Michelinen.

11:30etan, Ostadar - Segura

Goierri (I. Jubenila, kopa) Michelinen.

10:15etan, Euskalduna - Ostadar (Emakumezkoen Liga, kopa) Ubitarte, Andoainen.

11:30etatik aurrera, eskolarteko hondartzako txapelketako finalak, Kontxako hondartzan.

FUTBOLA 7

Larunbata 15

18:30etan, Spartak de Obelix - Hispavista.com (III. Maila) Felix Garin, Donostian.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 15

16:30etan, Eskolapioak - ISU Leioak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Eskolapioak kiroldegia, Tolosan.

17:45etan, Aldaz H.K.-Astraburuko (Nazional B maila) Kiroldegia.

JUDO

Igandea 16

9:30etan, LOKEko judoka alebinak Gipuzkoako txapelketan lehiatuko dira, Hernaniko kiroldegian.

ATLETISMOA

Igandea 16

Goiza osoa, Landaberriko alebin eta infantilek Gipuzkoako txapelketako 3. Jardunaldian parte hartuko dute, Elgoibarren.

9:00etan, Ostadarreko atletismo taldeko kide batzuk Aizkorri-Zegama Mendi Maratoian parte hartuko dute.

10:00etan, hainbat herritarrek Donostiako maratoi erdian parte hartuko dute, Donostian.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 15

16:00etan, Bazpi txirrindularitza eskolako gaztetxoak Gipuzkoako Errepideko txapelketan parte hartuko dute, Urretxun.

16:30etan, Bazpi txirrindularitza eskolako jubenilek XLII Arantzazu Igoera proban parte hartuko dute, Oñatin.

Igandea 16

8:00etan, Ostadarreko zikloturista taldeak Santa Engrazia egingo du iteera.

10:00etan, Bazpi txirrindularitza eskolako jubenilek Gipuzkoako

txapelketa izango den XXVIII Atxukale sarian parte hartuko dute, Mutrikun.

ERRUGBYA

Larunbata 15

Goiza osoan, Gipuzkoako Errugby eskolen Topaketak, Kontxako hondartzan.



PILOTA

Larunbata 15

16:00etan, Intza I - Zumaia (Eskuz binaka, infantilak) Zestoan.

16:00etan, Intza 2 - Usurbil (Eskuz binaka, alebinak 2. Urtea) Herrera, Donostian.

16:00etan, Intza 2 - Urnieta I (eskuz binaka, infantilak) Urnietan.

16:00etan, Gazteleku - Intza I (Eskuz binaka, alebinak 2. Urtea) Andoingo ikastola, Andoainen.

16:30etan, Donosti - Lasarte-Oria (Herri arteko txapelketa) Atano III, Donostian.



IGERIKETA

Larunbata 15

10:00etan, Buruntzaldeko Igeri taldeko gaztetxoek Neguko partehartze liga probintzialeko, 5. jardunaldian parte hartuko dute Benta Berriko kiroldegian, Donostian.

16:00etan, Buruntzaldeko Igeriketa taldeko gaztetxoek Kirol Zehaztasun Ligako 5. Jardunaldian parte hartuko dute, Ordizian.

BOLA-JOKOA

Igandea 16

Egun osoa, Ostadarreko bola joko taldeak Gipuzkoako Kopako saioan parte hartuko du, Aian.

VIII. Antzerki eta Dantza Astea

Larunbata 15

18:00etan, *Desfilea*
19:30ean, "Dantzaz Blai",
Dantza Garaikideko saioa

Astelehena 17

11:00etan eta 19:00etan
Mimo ariketak, LH-3
Nemoren bila, LH-4
Banpiro txikia, LH-4

Asteartea 18

12:00etan eta 19:00etan
Hamar minutu gauerdirako,
DBH-3 eta 4

Asteazkena 19

11:00etan eta 19:00etan
Koloreak, Amasorrain ikasto-
lako taldea
*Oto guztiak ez dira gaizto-
ak*, eta *Koloretako mundua*,
LH-1

Osteguna 20

11:15ean eta, 19:00etan
Birtxikleatu Txikle-klovn,
LH-5

Ostirala 21

22:30ean
Mikelenak, Solaskideen hel-
duen taldea
Hiru desio (Perrault), Urre
kuttuna Usurbilgo taldea

Astelehena 24

11:00etan eta 19:00etan
Masajearen ibilaldia, LH-2

Asteartea 25

11:00etan eta, 19:00etan
Landa Berriko izarrak, LH-6
6. maila bukatu da, LH-6
40 urte ta gero, LH-1

Asteazkena 26

11:30ean
"Dantzaz Blai", Dantza
Garaikideko saioa
11:30ean eta 19:00etan
Oin Kixoteren abenturak,
DBH-1 eta *Gonatan eta ero*
moduan, DBH-2

Osteguna 27

11:00etan eta 19:00etan
Ipotxaren etxea eta Printze
urdinaren bila, Sasoeta-Zuma-
buru ikastetxeko taldeak.

Ostirala 28

22:30ean
20/Klovnkidetza, helduen 1.
taldea
A ze kuadrilla amonak eta
hila kortoa, helduen 2. taldea.

Egunero

Erakusketa

JUAN MARI CEREZO, herriko
musikari zenaren omenez
argazki erakusketa jarriko
dute Lasarte-Oriako taldeek.
Jalgin, egun osoan.



Larunbata, 15

Festa

FAXISMOAREN BIKTIMEI
OMENALDIA

EKITALDI HAU BERTAN BEHERA
GERATU DA

Erakusketa

LASARTE-ORIAKO BIZILAGUNEN
elkarteko margo eskolako
lanak ikusgai. Kulturetxean,
18:00etatik 21:00ak arte.

Astelehena, 17

Zinea

COCONUT REVOLUTION eta
ONDOREN IMPACTOS DE LA FORES-
TACIÓN EN URUGUAY filmak
eskainiko dira Osina elkarteak
antolatutako EKOZINEMALDIAN.
Kulturetxean, 19:00etan.

Ostirala, 21

Kontzertua

LOUISE MICHELEN emanaldia .
Indie, fusion musika estiloak
jorratzen ditu. Kulturetxeko
kafetegian, 20:00etan.

Eskutitzak

Herria antolatzen jarraitu!

Garai gogorak, ilunak,
hotzak eta tristeak. Eguratsa
ezin argitu eta tristura aurpe-
gietan marraz marra ipinia.
Ala begitandurik ageri da
gure irudia ispilarean
aurrean. Nekea eta ezintasuna,
zenbat bider errepikatua
hitzez eta ekintzetan irudika-
tua. Baina okerrera zuek
utziriko tarte hori betetzera
inor ez dela etorriko. Beha-
rrezkoak zarete.

Idatzi hau herrigintzan



Gure herriko musika emanaldia

IBAIA TALDEAREN emanaldia entzungai. Honako musikari hauek
osetzen dute Ibaia taldea: Laura Latienda (ahotsa-gitarra),
Iñaki Dieguez (akordeoia), Ritxi Salaberria (kontrabaxua) eta
Igor Telletxea (perkusioa-gitarra). Beren erreperitorioaren
barruan, euskal erreperitorioko hainbat gai klasiko aurkitzen
dira, berek sortutako konposizioez gain.

GAUR OSTIRALA 14
KULTURETXEAN 20:00ETAN

Astelehena, 24

Zinea

TIERRA BAJO CORRIENTE eta
ONDOREN CLIMATE OF HOPE
(Clima de la esperanza) filmak
eskainiko dira Osina elkarteak
antolatutako EKOZINEMALDIAN.
Manuel Lekuona Kulture-
txean, 19:00etan.

Ostirala, 28

Kontzertua

ARIMAZ KAMERA ORKESTRAREN
emanaldia Danok Kide elkar-
teak antolatutako V. Musika
Topaketen egitarauaren
barruan. Brigitarren komen-
tua, 19:30ean.

Jam sesioa

J. 345 TALDEA izango da gonbi-
datua. Talde donostiarrak
jazz, swing eta funk jorratzen
du. Jalgi kafe-antzikian,
23:00etan.



Igandea, 30

Dantza

XXII. DANTZARI TXIKI eguna
ospatuko da. Herriko kaleetan
zehar, egun osoan.

Astelehena, 31

Zinea

CON EL AGUA AL CUELLO,
R.I.P.SOL, CONTRAJUNTA 2007
eta QUIERO SER TORTILLA filmak
eskainiko dira Osina elkarteak
antolatutako EKOZINEMALDIAN.
Manuel Lekuona kulture-
txean, 19:00etan.

Oharrak

Marrazketa eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen
Elkartek antolatzen duen
marrazketa eta margo eskolan
plazak badaude. Izena ema-
teko jo kulturetxeko 2. solai-
rura 18:00etatik 19:00ak
bitartean, astelehenetan, osti-
raletan eta larunbat goizetan
09:30etik 11:30era.

Zabaletako festak

Zabaletako Auzo-elkartek
ekainaren lehenengo astean,
ekainaren 2tik 6ra antolatuko
ditu Zabaletako festak. Hauek
antolatzeko asteartero,
19:30ean, Antonio Blas pla-
zan bilera egingo dela jakina-
razten du auzo elkarteak.

Usurbilgo Lanbide Eskolaren ate irekiak

Maiatzaren 15 eta 22an Usur-
bilgo Lanbide Eskolak goize-
ko 11.00tan ate irekien
jardunaldia ospatuko du.
Informazio gehiago:
943364600 edo www.lhusur-bil.com web atarian.

Udaltzainek jasotako gauzak

Udaltzainen bulegoak herriko
bizilagunei jakinarazten die
ondoko gauza hauek dauzka-
tela jasota, diru-zorroa, urrez-
ko katea, zilarrezko
zintzilikarioa, belarritako bel-
tza eta doratua, betaurreko
graduatuak, erloju digitala,
urrezko aliantza, Jose Luis
grabaketarekin eta Osakide-
tzako txartel bat.

Hauen jabeak direla
egiaztatzen duten herriarrek,
hilabeteko epean jaso behar
dituzte. Horrela izan ezean,
legeak ezarritako norakoa
emango diete.

Horietakoren bat ikuska-
tzeko interesaturik dauden
pertsona guztiei arren eska-
tzen zaie Udaltzainen Bule-
gora hurbil daitezela,
09:00etatik 13:00etara.

Gazteburuak

Gazte Klubeko arduradunak
gogora arazi nahi dute maia-
tzaren 15ean, Gazte Kluban
elkartuko direla arratsaldeko
16:00etan Tor Magoaren ikus-
kizunaz gozatzeko.

Udako Txokoak

Gogorarazi Udako Txokotan
(uztaila eta abuzturako) izena
emateko azken eguna maia-
tzaren 19a izango dela, hau
barne.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintzarri@txintzarri.info

Aupa zuek.

Beñat Iriondo

Gero eta artista gehiago

■ Desfile erraldoiak emango dio hasiera bihar, larunbata, 8. Antzerki eta Dantza Asteari

Orain zortzi urte ospatu zen lehenengo aldiz Antzerki Astea. Urtetik urtera gero eta komediante gehiago joan da eskolara hurbiltzen. Dantzak ere, poliki-poliki bere lekua egin du eta gaur egun Antzerki eta Dantza Astea bihurtu da. Hasieran astebete nahikoa zen prestatutako emanaldiak herritarrei eskaintzeko, baina taldeak gehitzen joan direnez, badira bizpahiru urte aste hori hamabostaldi bihurtu behar izan dutela.

TXINTXARRI

Bihar, maiatzaren 15ean hasi eta hilaren 28ra bitartean 500 lagun inguru pasako dira Manuel Lekuona kulturetxeko ohol-tzatik. Aipagarriena aurtengo parte-hartzaileen kopuru handia bada ere, ez da azpimarratu behar den bakarra, izan ere berrikuntza askorekin dator aurtengo Antzerki eta Dantza Astea.

Hasteko, aurten Antzerki eta Dantza izena jarri zaio Asteari, izan ere, dantza gero eta pisu gehiago hartzen ari da, taldeak gero eta gehiago dira.

Eskolak herrira salto

Gainera aurten Antzerki Eskola ez da mugatu Landaberri ikastolara, herrira salto egin eta jasotako hainbat eskariei aurre egin die. Esaterako Sasoeta-Zumaburu ikastetxean bi talde daude aurten, eta Añorga Txikiko Amassorrain ikastolan ere beste bi.

Ikastolatik Antzerki eta Dantza eskola ateratzea bi arrazoi nagusiengatik eman da, bata, sortu zeneko filosofia mantentzeko, "ahalik eta jende gehienak egin dezala antzerkia" (gaur egun dantza ere bai) eta besterik eskola bera sendotu eta egonkortzeko.

Eskola bera asko handitu da 8 urte hauetan, eta beste kudeaketa bat behar duela ikusi da. Kudeaketa hori nola gauzatu, beste hainbat gai eta

etorkizuna lantzeko zuzendaritza bat sortu da, hilean behin elkartzen dena. Zuzendaritza hori, irakasle, ikasle eta antzerkizaleez osatuta dago.

Zuzendaritza honek, gonbidapena egin nahi die interesatuen zezaketen herritar guztiei batzorde horretan parte hartzeko.

Aurtengo Antzerki Astea

Aurtengoari dagokionez, hainbat aipamen egin behar dira. Biharko desfilean, iaz bezala, eskolako talde guztiek hartuko dute parte, 500 lagun inguru (iaz baino ia 200 lagun gehiago).

Gainera Antzerki eta Dantza Astea, dagoeneko hamabostaldi bihurtu zaigu.

Antzerki eta Dantza Eskola lan egiten du herriko hainbat elkarterekin elkarlanean, horietako bat da Ttakun. Ikasturte honetan talde berri bat sortu dute elkarlanean, non euskaldun berriak, Solaskide programakoak, eta euskaldun zaharrak uztartzen diren.

Antzerkitik zinera

Aipatzekoa da ere, aurten helduen talde batek laburmetrai bat grabatu duela, *A ze kuadrilla, amonak eta hila*; Mertz Rodriguez irakaslearen zuzendaritzapean eta Isa Fdez. de Agirrek grabatuta.

Ez dago beraz aitzakiarik Antzerki eta Dantza Astearen etxean geratzeko, hurbildu kulturetxera, merezi du eta! •



Iaz bezain koloretsua izango da aurtengo desfilea. Ea eguraldiak laguntzen duen!

46 TALDE, 500 PERTSONA: ANTZERKIA ETA DANTZA EUSKARAZ

Maiatzaren 15etik 28ra Lasarte-Orian...

- Lasarte-Orian 500 pertsonatik gora aritzen gara euskaraz astero-astero antzerkia eta dantza egiten.
- 46 talde, 5 urterekin hasi eta adin mugarik gabe 13 irakasleren laguntzarekin.
- Antzerki eta dantza astea antolatzen dugu urtero, azken urteotan hamabostaldia bilakatu zaiguna.
- Aurtengoa 8. urtea izango da eta 19 antzezlan berri estreinatuko ditugu.
- Manuel Lekuona Kultur Etxean eskainiko ditugu saioak, maiatzaren 15ean hasi eta maiatzaren 28ra bitartean.
- Hamabostaldiari hasiera emateko maiatzaren 15ean, 18:00etan, herria zeharkatuko duen desfilea abiatuko da kultur etxetik. 500 partaideok kolorez eta dantzaz margotuko dugu herria, musikaz lagundurik.

Ondoren, 19:30etan "Dantzas blai" ekitaldia eskainiko dugu antzokian.

- Aurten antzerki eta dantza eskolaren abestia sortu da eta egunotan estreinatu eta ezagutzera emango da. Desfilea ere horren lekuko izango da.
- Antzerki jolasak, mimoa, klown-a, dantza garaikidea, esketx laburrak, antzezlan sakonak... denetarik dastatu ahal izango dugu. Oraingo honetan "A ze kuadrilla, amonak eta hila" laburmetraia estreinatuko da gainera.
- Aurten "Landaberri antzerki eta dantza eskolakook" Sasoeta-Zumaburu eskolara eta Añorga Txikiko Amassorrain ikastolara zabaldu dugu gure jardueraren eta lehen aldiz parte hartuko dute egitarauan. Usurbilgo Txerriki taldeko URRE KUTTUNA-ko jubilatuak ere gurekin izango dira.

• "Landaberri antzerki eta dantza eskolak" gonbitea luzatzen dizue herritar guztiei jardunaldietaz goza dezazuen gurekin batera. Bi aste hauetan urte osoko gure lana, esfortzua, izerdia eta ilusioa eskaini nahi dizkiegu, doan eta pozik.

• Hala ere, gure pozak badu bere alde tristea. Izan ere, Kultur Etxearen erabilerraren gastuaren zati bat ordaindu behar diogu udalari eta honi aurre egin ahal izateko, zuen **borondatezko diru-laguntza** eskertuko dizuegu.

• Lasarte-Orian, bizitza kulturala eta euskalduna sustatzea du helburu antzerki eta dantza eskolak, herriko gainontzeko **elkarlanean**. Jarduera honetan atek zabalik ditugu denontzat!!

ANIMO ETA AURRERA!!

LANDABERRI ANTZERKI ETA DANTZA ESKOLA



udako txokoak 2014

Izena emateko azken eguna maiatzaren 19a!

Hamaika abentura...

Primeran pasatzeko

uda!



Ttakun • Geltoki kalea 4 • 943 371448 www.ttakun.com